




Itsas dortoka bat. ARGAZKIA: UTZITAKO/AITZIBER EGAÑA CALLEJO



Donostiako zuhaitz-igela. ARGAZKIA: UTZITAKO/XABIER RUBIO

“**H**IRU aukera dituzte: lekuz migratu, klima berrira egokitu edo desagertu”. Baieztapen honekin azaldu zuen Xabier Rubiok, Aranzadi Zientzia Elkarteko Herpetologia behatokiaren koordinatzaileak, aldaketa klimatikoaren aurrean narrasti eta anfibioek dituzten aukerak.

Kopenhageko klimaren goi bilera-ren oihartzunak oraindik entzungai direla, Aranzadik, Donostian duen egoitzan, jardunaldi tekniko batzuk ospatu zituen ostiral goizetik atzo eguerdira arte, *Anfibio eta narrastien kudeaketarako tresnak* izenpean. Estatu espainiarreko hainbat adituk, igel, dortoka eta beste espezie askoren biodibertsitatearen zainketa aktiborako lanabesak aurkeztu eta elkartrukatu zituzten.

“Biodibertsitatearen krisia errealitatea da”, azaldu zuen Rubiok. Baina klimaren aldaketa ez da sugandila eta apoarmatu moduko animalien desagertapenaren errudun bakarra, beste asko ere badaude: tenperaturaren igoera, animalien azaltzen ari diren hainbat gaixotasun eta itsasoan azidifikazioa, esaterako. “Baina dudarik gabe –jarraitu zuen Rubiok–, dibertsitate biologikoa galtzearen kausa nagusia mundu mailan ematen ari den habitataren suntsiketa da. Eta hori ez da gauza berria”.

ESTATU MAILAN
Segimendua

Jardunaldietan Sare programari buruz ere hitz egin zuten. Proiektu honekin narrasti eta anfibioen epe luzerako jarraipena egiten da Estatu espainiar osoan. Lurra hamar bider hamar kilometroko zonaldeetan zatitu eta lauki sare bakoitzeko azter-

Aranzadi zientzia elkarteak mehatxatutako espezien inguruko jardunaldi batzuk amaitu zituen atzo. Narrasti eta anfibioen zaintzari buruz hitz egin zuten. **TESTUA H.F.**

Narrasti eta anfibioak babestu nahian



Jendea goizeko lehen konferentzia entzuten, Aranzadik Donostian duen egoitzan. ARGAZKIA: AINARA GARCIA

keta egiten dute hainbat urtetan. “Honekin egoeraren urtez urteko erradiografia lortzen dugu”, azaldu zuen Aranzadiko Herpetologia arduradunak. Gaineratu zuen, bestalde, segimendu hori erabilgarria dela zein tokitan egin beharko litzatekeen lan adierazten duelako.

Zientzia elkarteak, bere aldetik, prozedura hau Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Errioxan hasteko asmoa du eta, egun, segimendua egiteko bolondresak bilatzen ari da.

GIPUZKOAKO EGOERA
Igela eta apoa

Gipuzkoari dagokionez, Aranzadik mehatxatuta dauden espeziekin egiten du lan, igel meridionala, apo lasterkaria eta, momenturen batean, narrastiekin. Halere, lurraldeko espeziei buruz “informazio gutxi dago”. “Dauden datuak –adierazi zuen Rubiok– oso zaharrak dira eta ez dute egungo errealitatearekin bat egiten”. Orain arte instituzioen aldetik babes gutxi jaso dutela salatu zuen eta, gainera, ikerketa lan hauek egiteko espezialista gutxi daudela baieztatu zuen. Rubiok ez du, halere, esperantzarik galtzen. Puntu positibo bezala ikusi zuen instituzioen jarrera aldaketa, orain espezien zaintzan pausoak ematen hasi dira eta.

Nahiz eta informazioa urria izan, onartu zuen ezagunak ziren anfibio kantitate handiko foko asko desagertu egin direla. Eta ez bakarrik desagertu, espezie asko isolaturik gelditu dira eraikitako hainbat erre-pide, azpiegitura edo urbanizazioak hesi efektua dute eta. Animaliak ezin dira beste espeziekin erlazionatu.

Horren adibide nagusi Txingudin, Irun eta Hondarribia artean, bizi den apo lasterkaria da. Egoera latzetan biziraun dezakeen espezie bat izan arren, inguruan hedatzen ari diren hiri eta herriek arriskuan jarri dute. Elkarren arteko komunikazio modurik ez duten hainbat nukleotan bizi da apoa, baina bizirauteko urmaelen arteko komunikazioa behar du, bate-tik bestera mugitzeko. Rubiok arazo hau konpontzeko “diru inbertsio handia” beharko litzatekeela pentsatzen du.

Habitataren suntsiketaren ondorioz desagertzen ari dira anfibio eta narrasti espezie asko

OUTLET
LA MODA DE LAS OPORTUNIDADES
en el centro de DONOSTI

C/GARIBAI, 18

Tel.: 943 42 53 92

BAR LA CEPA

Zorionak guztiei.
Un año más, felicidades

C/ 31 de Agosto, nº7 y 9 - 20003 DONOSTIA - Tel. 943 426 394 - Fax 943 429 104
www.barlacepa.com - e-mail: joaquinpollos@barlacepa.com